

NAFAR ERRET GAZTELUEN IKERKETA ARKEOLOGIKO-ARKITEKTONIKOA. ERROLDA ETA LOARRE-KO KASUA

Tesiaren egilea: Begoña Yuguero Suso

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Arkitektura Saila

Tesi-zuzendaria: Ana Azpiri Albistegui

Tesiaren laburpena:

Tesi honen xedea nafar erret gazteluen aztarnak eta arkitektura aztertzea izan da. Horretarako, bi ikerketa paralelo eta elkarlotuak egin ditugu.

Alde batetik, nafar erret gazteluen errolda bat egin dugu, eta bakoitzaren zenbait datu bildu dugu datu-base batean (aztarnen egoera, eraikuntza mota, materiala, kokapen mota eta abar). Datu horien bidez GIS mapa batzuk osatu ditugu, nafar erret gazteluen ikuspegi orokor bat edukitzeko; horrekin batera, gazteluen eraikuntza-tipologia eta lurraldearekiko duten antolamendua aztertu ditugu.

Eta bestetik, nafar erret gaztelu horietatik bat sakonago ikertu dugu, hain zuzen hoberen kontserbatu dena eta gehien gertatzen den tipologiakoa: Loarreko nafar erret gaztelua. Ikerketaren jardunean, tipologia hedatuenerako gaztelu bakar bat sakonago aztertu nahi izan dugu, tipologia horretako gazteluak hobeto ulertzeko. Azken batean, Loarreko gazteluaren bilakaera eta eraikuntzaren azterketatik ateratako ondorioak, tipologia bereko edo antzekoiei ere hein handi batean aplikatu ahal zaizkie, gazteluen eraikuntzak estandar minimo batzuk betetzen baitzituen. Loarreko gazteluan, Arkitekturaren Arkeologia baliatuz, fotogrametria bat burutuz, bere horma eta egiturak irakurriz, gaztelu horrek izan zituen eraikuntza-faseak aztertu ditugu, eta horien hipotesi-mailako kronologiak eman ditugu.

Beraz, ikerketa honetan nafar erret gazteluen ikuspegi orokor bat lortu nahi izan da, hau da, urrats bat eman da gaztelu-sarearen testuingurua ulertzen hasteko. Gainera, gazteluen hormen aztarnak esan nahi digutena entzuten hasteko deialdi bat ere izan da, azpimarratzekoa baita arkitektura dela garai horretatik heldu zaigun elementu objektibo bakarrenetakoa.

Azken batean, ikerketa hau hastapenerako lan bat baino ez da izan, arkitektook arkeologiaren betaurrekoak jantzirik, nafar erret gazteluak ikuspegi global batez ulertzen has gaitezen.